

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1996-97- IKAS-URTHEA.

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS. BIDEA.

1. Errientsa zertako maite dute Haurrek!
2. Emazue beste biz bat marmolaren orde.
3. Haurretan norik iduri du adimendudunena!

II

HIRU XIMINUEN ERAKASPENA

Gure herriko errientsa biziki maite dute haurrek, biziki alegera baita.

Egia erran jostatuz bezala argitzen eta altxatzen ere ditu bere eskolier-eskoliersak.

Joan den eguncan eskolarat ekarri du Japonese marmol-iduri bat, hiru ximino itxuratzen zituena, eta tauleta baten gainean ezarri du denek ikusteko gisan.

Ximino horietatik lehenak bere begiak gordetzen ditu; bigarrenak l. beharriak tapatzen; hirugarrenak eskua muturraren aintzinean emaiten.

Haurrak so eta so daude, eta azkencan Jomingok erhia altxatzen du, zerbait galde egiteko:

—Zer nahi duk, Jomingo? dio errientsak.

—Nahi nuke jakin zer diren ximino horien sinoak, eta zer erran nahi duten.

—Arrazoin duk, Jomingo: orok behar duzue hauteman ximino horiek emaiten daukuten erakaspena. Kasu hunat! Begiak gordetzen dituen horrek dio: "Ez ikus gaizkirik." Beharriak tapatzen duenak: "Ez entzun gaizkirik."; Eta eskua ahoaren aintzinean duenak: "Ez erran gaizkirik!" Konprenitu duzue?

Orok betan: "Bai, Bai, anderia!"

Bizkitartean Peio gibekeko alkitik erhia altxatzen du. Andere errientak orduan:

—Peio, baduka erraitekorik?

—Eni iduri zait berdin bertze zerbait erran nahi luketela.

—Uste duka?

—Lehena entzuten dagola, bigarrena so, eta hirugarrena gogoeta!

—Funtsean, hire adineko mutiko batek pentsatzeko, ez duk batere gaizki!

Peiori sari bat eman dio andereñoak mila arrazoinekin.

34 UKAN - Conj. à dble cplt Indic. Présent

Objet singulier - Compl. indirect pluriel

Guri = à nous.

Zuk daukuzu = vous nous l'avez

Harek dauku = il nous l'a

Zuek daukuzue = vous nous l'avez

Heiek daukute = ils nous l'ont

Conj. périphrastique = emaiten dauku
il nous le donne.

III ADITZ IKASKUNTZA

31. so daude 32. zer nahi duk
33. nahi nuke 34. emaiten dauku
35. horrek dio 36. iduri zait.

31. EGON -

Indicatif -

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nago = je reste	nindagon = je restais
Hi hago = tu restes	hindagon =
Zu zaudu = vous restez	zinauden =
Hura dago =	zagon =
Gu gaudu =	ginauden =
Zuek zauduzte =	zinaudezten =
Heiek daude = etc.	zauden = etc.

32. UKAN - Conj. familière - Indic. Présent

<u>O. Sing.</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik diat. diat = je l'ai	N. ditiat. ditinat
Hi duk. dun = tu l'as	H. ditiek. ditun
Zuk duzu =	Z. dituzue
Harek dik. din =	H. ditiek. ditin
Guk diagu. diagu =	G. ditiaqu. ditinaqu
Zuek duzue =	Z. dituzue
Heiek die. dine = etc.	H. ditie. ditine

33. UKAN - Conditionnel Présent.

Nik nuke = je l'aurais	mituzke = je les aurais
Hi nuke =	hituzke =
Zuk zinke =	zinituzke =
Harek luke =	lituzke =
Guk ginuke =	ginituzke =
Zuek zinkete =	zinituzkete =
Heiek lukete = etc.	lituzkete = etc.